




## Gaur/Atzo

# Arkitektoaren irudi berriak hamarkada berriaren atarian

*Gako-hitzak:*

*Bolognako prozesua. Arkitekturaren kompetentzia berriak. Arkitektoon prekarietatea*



Ibai Gandiaga



Kepa Ilurralde



Maider Uriarte

### 0 Aurkezpena

Hasiberriak lelopean hasi dugu kritika eta ezagutzara doan bidaia hau. Gaiaren aukeraketa ez da halaberharrez etorri, bizi dugun egoeraren isla bat egiteko borondatek baizik. Eta gauzak deskribatzeko, hau da, laginaren aukeraketa egiterakoan, erreferentziazko eredu bat izatea erabilgarria da oso. **Gure lagina 2009. urteko egoera sozial, ekonomiko eta arkitektonikoa da eta erreferentzia, aldiz, 1979. urtea.** Bien arteko tartean, belaunaldi baten eraldaketa topatzen dugu, eta hiru hamarkadak busti dituzten aldaketa politikoak, gorakada ekonomikoak, lurraldearen urbanizazio basatia eta arkitektura-industriaren aldaketa izugarria.

Kontakizun hau gauzatzeko, liburu eta datu-baseetara jo beharrean, denbora horiek bizi zituzten eta dituzten pertsonekin mintzatu gara. Batzuk izen eta abizenez aurkeztu ditugu; beste batzuk, berriz, atzeko atetik sartu egin dira. Esperientziaren sentipenak tranpatak badira ere, pentsamenduak hitza erdi-tzen duen momentutik azpijoko batean murgiltzen gara. Ez du, honako saiakera honek, inondik inora azterketa soziologiko baten itxura hartzeko desiorik; aitzitik, Euskal Herrian jazo diren gauzen isla eta kritika baten beharra sumatzen dugun heinean, ahalik eta orekatuena egiten saiatuko gara.

### I Garaiak aldatu dira, 1979


1979. urtean, garai nahasiak bizi ziren. Diktadura bukatutzat ematen zen, demokraziari txanda emanez. Martxoaren batean, Adolfo Suárez trantsizio-prozesuaren gidari bihurtu zen, bozek UCD alderdiari emandako legitimitateari esker. Urtea bukatzeaz zegoela, Euskal Autonomia Erkidegoaren izaera definitu behar zuten Estatutua sinatu zen. Hiru urte geroago, Nafarroako foru-erregimenaren ordenaketa arautuko zuen legedia sinatu zen. Pixka bat lehenago, 1981ean, François Mitterrandek Frantzia sozialismoaren kale-kantoietatik bideratu zuen (eta, bide batez, arkitektura frantziarra estasi egoerara eraman).

**Berrogei urte baino gehiagotan zehar, Espainiak higidura zentripeto baten pean mantendu zituen Estatua osatzen zuten**

**lurraldeak.** Demokraziarekin batera, prozesu zentrifugo bat hasi zen, eta norberak berea zaintzen, aztertzen eta hobetzen hasiko zen. EAEn 2 milioi biztanle genituen 1981ean, Nafarroan miloi erdi, eta Iparraldeko lurretan (antolakuntza administratiboa dela-eta asmatzen zaila bada ere) 200 mila bat lagun biziko ziren.

Baina, dudarik gabe, hamarkada, eta gerora etorriko zen mundua, modu bortitzenean markatuko zuen mugarririk historikoa Petrolioaren Krisian topa dezakegu. Ekialde Hurbilean jasotako tentsioen ondorioz, gizarte industrialaren erroak eratzten zituzten petrolio-upelen emaria arriskupean ikusi zen, II. Mundu Gerratik estreinakoz. Amerikako Estatu Batuen kasuan, ondorioak etortzeko zegoen hirigintzaren gaitzen atarikoak bihurtu ziren; munduko populazioaren % 6ren jabe izanik, munduan kontsumitzen zen energiaren % 33 erabiltzen zuen, munduko industriari laurdena bereganatuz. Ondorioz, AEBko industria munduko beste edozein industria baino lau bider produktiboagoa bazen ere, batez bestekoak baino bost bider energia gehiago kontsumitzen zuen.

1977. urtean, Robert Venturi, Steven Izenoir eta Denise Scott Brown-ek Learning from Las Vegas saiakera argitaratu zuten. Bertan, energia-krisiarekin harreman anitz dituen hiri estatu-batuarraren eraketari buruz jardun ziren; Amerikako tradizioak Europako hiri-ereduari muzin egin zion, eta kotxearen kultura gurtu. Hiri amerikarrak, funtzionalismoaren keinuak behin eta berriro errepikatuz, “lan”, “bizi” eta “olgotu” jarduerak banandu zituen, eta beraien arteko lotura autoaren erabilera exijitzen zuen. Hortaz, petrolioaren krisiak Mundu Gerratik ikusi gabeko agerraldiak ekarri zituen, errazionamendu-kupoien kasu. Postmodernitatearen lengoaiak Estilo Internazionalarekin galdutako erreferentziak, tropoak eta historiografia bueltatzen ditu. Italiatik etorritako Tendenza mugimendu neoarrazionalistak, ordea, tipologia kulturala eta arkitekturaren duintasun monumentala berreskuratzeko saiakerak egin zituen. Frank Gehryk, bere dibortzioak sortutako estresa gainetik kentzeko, bere Santa Monica etxea birmoldatzea erabakitzen zuen 1979an. Aipatu bezala, garai nahaspilatsuak zeharo.



*Irudiaren egilea: Irati Burgués*

## 2 2009. urtea. Arkitektoaren irudi berria

Has gaitezen kopuru batzuekin, gauzen proportzioaz jabetzen garela ziurtatzeko. 44 milioi biztanleko estatua da Espainia, eta Europar Batasunean sartuz geroztiko gorakada ekonomikoa ukazina da. Espainiako Arkitektura Elkargoen Goi Kontseiluak (EAEGK) 2007. urtean argitaratutako txostenaren kopuruek gaur eguneko erradiografia bat erakuts diezagukete: **2001 urtetik 2007ra bitartean Espainian 33.723 elkargokide arkitekto izatetik 49.565 izatera igaro gara, hau da, % 46ko igoera. Elkarkideez ari gara, lizentziatuen kopurua zehaztea zaila baita. Aurreikuspenen arabera, hemendik hamarkada batera kopurua bikoiztuko dugu (egun, ikasle kopuru berdintsuak dihardu Espainiako estatuan zabalduak 50 arkitektura-eskoletan ikasten).** Edozein kasutan, eta Kataluniako Elkargoaren datuei begira, Espainiako estatuan 1.493 biztanletik arkitekto bat dugu. Kopuru hori, gutxi barru Italiak agertzen duen 516 lagunetik arkitekto bat proportziora inguraturako dela ematen du.

Ondorioak ezin argiago datozkigu: belaunaldi baten buruan, **arkitektoaren itxura, lan egiteko modua eta arkitekturaren kontzeptzioa bera ere aldatu egin dira.** Posible izango al da hemendik hamarkada batera 100 mila arkitektoarekin egitea topo? Prest al dago arkitekturaren industria horrelako aldaketa bati aurre egiteko?

Elkargoaren Kontseiluak kezka bizia agertu du auziaren inguruan, eta udan Valentzian antolatutako kongresuan, arkitekturaren eta arkitektoen bide berrien nondik norakoak izan dira hitzetik hortzera. Valentziar sargaritsuan, egoera eta aurretik sortutako polemikak puri-purian egon dira. Kode Tekniko Berriaren inposizioa, industriaren erroak astintzen dituen krisialdi ekonomikoa, Bologna prozesua, estatu osoan jasotako ustelkeria-kasuak izango dira hizpide, eta batez ere, kezka larria bezain komuna: lana egongo al da denentzat?

## 3 Nola ziren arkitekto baten hastapenak orain dela 30 urte?

70eko hamarkadak mundu osoko bazterrak harrotu zituen, poli-

tikoki, kulturalki eta, batez ere, ekonomikoki. Bigarren Industria Aroa iristear zegoen, ordenagailuen hedapenarekin. Urte horietan pairatutako desoreka geopolitikoaren oihartzunak gaur egun entzun daitezke mundu osoko gatazka politiko eta militarretan.

Espainian, artean, lurraldea definituko zuten erkidegoak asmatu ziren, zentralismo basatitik deszentralizaziora iraganen. Arkitektura-eskolak ugaritzen joan ziren (tradizionalki Bartzelona edo Madrileko eskolek hartzen zuten bere gain estatuko ikasle zama handiena). 1979ko data baino bi urte lehenago, Bartzelonara eskolak emateko asteroko joan-etorria egiten zuen Luis Peña Ganchegui azkenengo kurtsoak Donostiara eramatea erabaki zuen, ETSABko lemapean bost urtez egongo zen Donostiako Arkitektura Eskolari hasiera emanez. Iruñeko eskolak 1954. urtetik ziharduen arkitekturaren irakaskuntzan, eta 1979. urtean Leopoldo Gil Nebotek arkitektura-eskolaren zuzendari-kargua onartu zuen.

1979an, “progre” terminoa hitzetik hortzera zegoen, eta Italiatik zetorren Tendenzak arkitekturaren irudi iraultzailea berreskuratu zuen. 70 eta 80ko hamarkaden pasarte horretan, tipologia, genius loci eta gerora ahaztu egin ziren esamoldeak erabiliko ziren eskuarki. Esan bezala, gizateria aldatzeko irrikak puri-purian zeuden, bizitzaren alderdi oro kutsatuz. Edozer gauza egiteko gai zen belaunaldia, nahiz eta krisialdi ekonomikoa larri bat pairatu. Hasierak ez ziren egun izan daitezkeenez bestelakoak; kontaktuak zituena kontaktatuko zuten, ez zuenak, oposizioetara joko zuten eraikuntzaren jarduerarik eza konpentsatzeko. Horrela, eta gaur egun kasu askotan gertatzen den bezala, udal-arkitektoek bigarren lanpostu bat izaten zuten, arlo pribatuan. **Kontakturik gabe, oposiziorik gabe... estudioa ezartzea besterik ez zenuen.**

Jarrera, oro har, hori zen, nork bere estudioa antolatu. Hain urrunak iruditzen zaizkigun garaiotan, irudiak, aurrekontuak, memoriak, kalkuluak, digitalizatu gabe zeuden. Errealitateak ez zion oraindik hiperrealitateari pausoa eman. Proiektuen eskala (paper eta dokumentu kantitateetan) oso urria zen. **Alde batetik ez zegoen horrenbesteko beharrik, beharginek aski esperientzia**

eta jakituria baitzeukaten, bizitza oso bateko lan-eskarmetua eta gero. Beste alde batetik, eraikuntza-sistemek ez zuten egun exijitzen zaizkien kalitateen beharrik izaten (oro har zekartzan ondorioekin, gaur eguneko birgaitzean ageriak direnak).

Eta, noski, arkitektoaren irudia. 50 urtetik gorako edozein arkitektoarekin hitz egin eta gero, zilarrezko armadurako zaldunen egunak pasatu egin zaizkiela hauteman daiteke. Zoritxarrez edo zorionez, arkitektoa obraren “jainkoa” izatetik eraikuntza-prozesuko irudi xume bat (hala ere garrantzi handikoa) izatera igaro da. Aldaketa hau gutxika etorri da, eta eskariak ugaltzeak zerikusia izan du. Kontrol Teknikoko Bulegoek (KTB) arkitektoaren kontrolean mugapen izugarria ezarri dute, aseguru-etxean mandatu. Dirua erdian sartzen denean, ez dago balioko duen lanbiderik.

#### 4 Nolakoak dira egun estudio batean hasi nahi duten arkitektoen hastapenak?

Badirudi, krisia dela eta ez dela, baita bestelako arrazoiengatik ere, ez dutela arkitektoek estudio bat sortzeko garairik aproposena. Nolanahi ere, egoera deseroso honetan hastapenetan dauden estudioek sekulako gizontze-emakumetze proba gaudituko lukete, baldin eta berezko lantokia biziaraziko balute, krisiak aitzin.

Honelako enpresa edo ezinezko misio bati aurre egiteko motibazioak asko eta askotarikoak izaten dira. Pasioak bultzatutakoak: “Arkitektura bide, mundua aldatuko dugul?”. Lagunartekoak, “Zu(ṛ)ekin, inorekin ez bezala lan egiten dut, sor dezagun estudio bat elkarrekin”. Nekeak katalizatuta “Ez dut jefea jasaten eta ez dut inoren menpe lan egin nahi” eta azkenik, “Zoriona”-k (eta lan gogorrek) lagundutako hastapena. Esan nahi da, lehiaketa garrantzitsu bat irabazi ondoren edota enkargu potolo bat sinatzeak dakarren hastapen zorionekoa. Hau izaten da, oro har, egoera baikorrena eta aldi berean, logikoena, lanari ekiteko.

Elkartuta daude beraz arkitekto gazteak, gogo eta grinez beteta, baina enpresa profitagarri bati ekiteko talentua, grina eta jakituria

ez dira nahikoak. Ahaztu egiten da egitura antolatu bat eratzea zeinen funtsezkoa den. Bulego bat sortzeak dakartza hartu beharreko erabaki inplizitu batzuk, hala nola enpresaren egitura zer-nolako izango den (autonoma(k), s.l.p., s.c., kooperatiba...), edota lan-metodologia finkatu: piramide-hierarkia, horizontala, zeinek hartzen duen proiektu baten nondik norakoen azken erabakia, zeinek sinatuko duen, zeinek ez, estetikak, estiloak, eta abar.

Zein da formula egokiena? Besteak beste, hiru eredu nagusitzen dira:

- 1) Arkitekto “bakartiaren” ideia: berritzailea, sortzailea, kalitate arkitektoniko izugarritzko proiektuen egilea... baina teknikoki eta antolakuntza-aldeak lanak aurrera eramateko zailtasun asko dituen. Jenialtasuna etekinak baino lehenago jartzen da.
- 2) Etekinen (hau da, bezero eta bulegoak exijitzen dutena) eta jenialtasun horren arteko oreka.
- 3) Mozkinak helburu duten enpresak (enpresa bat ez da, azken finean, besterik). Kalitate eta kantitate handiko proiektuak, oso lehiakorak. Bidean jenialtasuna galdu egin ohi da.

Honen harira, esan genezake bai bezeroak bai enkarguak lortzea dela arkitekto-estudio batentzako lanik zailena. Enpresa tradizionalan, salerosketa-sailak eta enpresa saltzeko bereziki kontratatutako langileak izaten dira lan horren arduradunak.

Estudio txikietan enkarguak ezagunen eskutik jasotzen dira, edota informazio pribilegiatuaren banatzaile-lortzaile anitzen bidez. Bestelako bidea lehiaketak prestatzea da. Lehiaketetan ez dago ordutegirik, ez dago asteko egunik, ez dakizu maiatzaren 1a jaieguna denik ere. Lehiaketak izan daitezke inbertsio paregabea edota alderantziz, denbora/dirua/osasun galera ikaragarria pairatzeko modu eraginkorrena. Nola lortu bezeroak eta enkarguak beraz? Azken finean, esku artean daukazuna negozio bat da eta aurrera nolabait ere atera beharko duzu (idiosinkrasiak ahaztu gabe). Bulegoa lokal komertzial batean kokatuta ere, auzotarra ez zaizu ate joka joango kilo bat proiektu eroatera.



Irudiaren egilea: Irati Burgués

Lan komertzial proaktiboari buruz ari gara hemen. Zer da egiten duzuen? Zergatik da zure estudio/enpresa garrantzitsua? Zeinentzako zerbitzua eskaintzen duzu? Argitalpenik baduzu? Zer onura jasoko ditu bezeroak zu kontratatuz gero? Zein da zu kontaktatzeko modua? **Zein da zure web orria? Ba al duzu blogik? Fotolog-ik? Facebook perfilik? Myspace perfilik?** Internetek gainezka egiten du gizarte-sareekin, zu barnean zaude?

Finean, bulego hasiberri guztiak dira Errioxako jatorri-deitura duten ardoak bezalakoxeak, baina batak zein besteak bereizgarriak ditu eta batak zein besteak bezero zehatzak. Arkitekto-enkargu-bezero dinamika hau baina, egokia ote da arkitekto guztiarentzat? Mezenas baten beharra eta norberaren marka sortzeko grina ez al daude agortuta? Estudio askotako gazteek helburu nahasiak dituzte eta irakaskuntza, diseinu grafiko, argazkilaritza, ikerketara zuzentzen dira aldi berean. Garaiak garai, hastapenetan, lardaskan ibiltzea da normalena honenbestez.

##### 5 Arkitektoa erronka berrien aurrean. Bolognako auzia

Azkenengo denboretan, arkitektoaren irudia Europa mailan parekatzeko ekimenek haren izaera profesionala errotik jarri dute zalantzan. Ingeniaria versus arkitektoa **ika-mika\*** zaharrak plazara egin du salto, beste behin ere. Honela laburbilduko genitzake Bolognako Prozesua eta honek Espainiako estatuko arkitektoen esparruan izan duen eragina (EHAEOKo dekanoko Manuel Sagastumek idatzitako laburpen batean oinarritua, Dekanotzaren web gunean eskuragarri):

-1998. Sorbonako Deklarazioa. Goi Mailako Hezkuntzaren eta Ikerkuntzaren Europar Espazioaren (GMHIEE) abiatzea.

-1999. urtean hasi zen Prozesua Bolognan Europako 29 herrialdeetako hezkuntza-ministroak bildu ostean. 2010. urterako GMHIEE ezarrita egongo dala adosten da, hurrengo irizpideetan oinarrituta: 1-kalitatea, 2-mugikortasuna, 3-aniztasuna eta 4-**lehia-kortasuna**.

-GMHIEEren helburu nagusiak hurrengoak dira: 2 ziklo barne hartzen dituen titulazio-sistema, kreditu-sistema internazionala, ikasle, irakasle eta ikertzaileen mugikortasuna sustatzea, goi-mailako hezkuntzan kalitatea bermatzeko lankidetzeta eta, finean, goi-mailako hezkuntza europarraren dimentsioa sustatu eta bultzatzea.

-GMHIEEren estrategia honakoa da, lehenengo gradu maila lortu arteko ikasketak egin, espezializazioa lortu master ikastaro osagarri batekin edota doktoretzara bideratzen duen master bati ekitea.

-2001-2007 bitartean herrialde bakoitzeko hezkuntza-ordezkarriak hainbatetan bildu dira.

-2007. urtean Espainiako estatuko Ministroen Kontseiluan, arkitektoen formazioa araupetuko duen norma adosten da. Honek, Arkitektura Gradua lortzeko, bost urtetan 300 ECTS (europar kredituak) + Karrera Amaierako Proiektua (KAP) egin behar direla ezartzen du. **Ez dago argi, KAP hori, Graduak 300 kredituen barne dagoen edota alderantziz, kreditu gehiago lortzea suposatzen ote duen.** Interpretazio zehatza, dirudienez, lehenengoa da, baina Arkitekto Elkargoaren Kontseilu Nagusitik, bigarren interpretazioa zehazteko tramiteari ekin zioten, alegia, Arkitekto Gradua = 300 ECTS (5 urte) + 30 ECTS KAPekin lortzea.

-2009. Ika-mika\* hasten da ingeniariaren titulazioa araupetzen duen normaren onarpenarekin batera. Urtarrilean onartu den arau honek ebatzen duenez, Goi Mailako Ingeñariaren titulazioak 300 ECTS + karrera amaierako lana (? ECTS) barne hartzen ditu, eta horrela Ingeñaritzako Master bilakatzen dira.

-**Arkitektoen Elkargoaren Kontseilu Nagusiak errekurtsioa jarri du arau horren kontra, GMHIEEren irizpideak urratzen dituela uste dutelako.** Aldi berean, Arkitektoaren titulazioaren aldaketa sustatzeko ekimena martxan jarri dute, hau da, Arkitekto Graduko ikasketak (300 ECTS / 5 urte) + KAP (60 ECTS) = Arkitekturako Masterra.





Irudiaren egilea: Irati Burgués

-Honenbestez, Espainiako estatuaren legediaren arabera, karrera luze eta gogorrenak, Medikuntza, Arkitektura eta Ingeniaritza dira.

-Kataluniako Arkitektoen Elkargoak plazaratu du Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak (Sagastume dekanok behin behin) aho batez babesten duen gogoeta: “Titulu luze eta bizi bakar baten alde gaude Arkitekturan jarduteko (gaur egun ere holakoa eskatzen da) [...]. Gaur egungo arkitektoa, arkitektoa bada, eta hala izango da. Bihar-etziko Arkitekturan graduatuak ere hala izango dira. Berriki goi-mailako titulazioen arteko desoreka formala sortu duten distortsioen aurrean, Master titulu akademikoa automatikoki ekarriko duen 60 ECTS-ko Karrera Amaierako Proiektua defendatzen dugu. [...]EBtik kanpo, ikasketak batzuen Master titulazioaren ez-onarpenak, eta arkitekturak badu berezko eskakizun maila altua, profesionali kalte egiten die lehiakortasun internazionalari dagokionez. Beraz, irtenbideen behar larria mahaigainerazten dugu”.

**\*Ika-mika:** Arazoa, arkitektoak ingeniariekin konparatzen direnean sortzen da batetik, eta bestetik, arkitektura titulu espainiarra, Europako beste herrialdekoekin alderatzen danean. Titulu espainiarrekin lortzen diren eskumen eta erantzukizunek izaera askoz teknikoagoa dute, esaterako Frantziako arkitektoenak baino.

**Arkitektoak historikoki duen irudi goren hori, gutxiagotu egiten da Europako mailarekin alderatuz gero.** Arkitektoaren sinadurak eraikuntzaren osotasunaren erantzule egiten du. Diseinuaren (hau gizartean ulertzen den bezala, bere konnotazio guztiekin) eta instalazio zein egituren eta, oro har, eraikuntzaren burutze egokiaren erantzule. Errealitatean, ordea, estudio gehienetan, betiere proiektuaren tamainaren arabera, bai instalazioaren bai egituraren kalkulu guztiak ingeniariaren estudioetara bidaltzen dira haiek kalkula ditzaten. Bitartean, arkitektoak “diseinatu” egingo du eta kalkuluak jasotzen dituenen, proiektuari eran-

tsiko dizkio, bere firma baliotsuarekin batera. Badirudi horren arabera arkitektoak ez direla gai proiektuaren osotasuna biltzeko eta, modu egoki batean, epe finkoen barnean, araudi eta zehaztasun tekniko guztiak erabat menperatuta, bere sinadurak dakarren kalitate-bermea eskaintzeko. Gainera, berme hori eskaintzeko, obra bakoitzeko, oinarriar arkitektoa 10 urtez lotzen zaio aseguru-etxeari. Ez al da egile (diseinuaren) baino gehiago arkitektoa erantzule (aseguru-etxearen aurrean)? Beraz, zergatik tradizionalismo hau itxuraz zaharra, pisutsua, betekizunez eta erantzukizunez jositako titulu honekiko?

Merkatuan lanean dabilen arkitekto orok du titulazio berbera, karrera luze eta bizi batetik pasatu eta gero jaso. Baina egia da, era berean, ehuneko txiki batek baliatzen dituela bere tituluak dakartzen osagarri horiek guztiak, sinadura, aseguruak, erantzukizunak, etab. 300 kredituko (KAP barne) graduatu bat gai izango ote da merkatuan orain arteko arkitektoek bezala lanean jarduteko? Berme guztiekin? Eskuratuko ote ditu hala aritzeko beharrezko jakintza nahikoak? Baina, egun esan bezala, zenbat arkitekto titulatu berrik dihardu horrela?

Europara bueltatuz, oro har, Espainiako estatutik kanpoko arkitektoen tituluak ez badu jakituria teknikorik ematen, orduan Frantzian, Suedian edo Holandan egiten den arkitekturak ez al du kalitatekerik? Ez da, bada, gakoa izango diziplina-aniztasun orekatu bat, ingeniariekin ere, baina sinadura eta egile bakar baten atzean kamuflatu gabe? Ez al da, bada, kalitatezko arkitektura denon helburua, kompetentzia-arazoetan ibiltzea baino garrantzitsuagoa?

## 6 Ezegonkortasuna? Autonomoak edonon

Arquitectos Explotados erakundeak orain dela 30 urte pentsaezian ziren aldarrikapenak ekartzen dizkigu. **Autonomo “faltsuaren”**

**arazoa larrituz joan da** hainbat lan-esparrutan, arkitekturaren mundua barne (abokatuak dira, arkitektoekin batera, deformazio hau pairatzen duten beste lizentziatuen kolektibo handia). 40 urtetik beherako profesionalek, maiz, ezegonkortasun-egoera batean murgilduta ikusten dute beren burua. Askoren aburuz, egoera hau proiektuen kalitatearen kontra doa, arkitektoen ogibideak historikoki izandako ospea eta duintasuna zapuztuz.

Lehen aipatu den EAEGK-ko 2007ko inkestaren arabera, elkarkide diren arkitektoen % 22 beste arkitekto edo enpresa baten kolaboratzaile dira. Antza, ez dirudi kopuru handia, ez kezagarria. Arazoa, inkesta horren barnean sartu ez diren (elkarkideak ez izateagatik) arkitektoen kopuruan datza. Euskal Herrian zehar, edozein arkitektura-estudiotan (txikia zein handia), praxi normalizat hartzen da lankide autonomoak kontratatzea; nahiz eta kopuru ofizialik ez izan, batez ere profesional gazteen artean (40 urtetik behera).

Horrek dakartzan ondorioak biziki larriak dira, langileen eskubideen aldetik behintzat; **kontratudun batek izan ditzakeen desabantaila guztiei autonomoak dituenak gehitu behar zaizkie**. Sarritan, oporrak ordaindu gabe gelditzen dira, langabeziako subsidiorik eza dago (orain, krisialdian, arkitekto asko langabezia ezin kobratuta aurkitzen dira), eta kaleratzearen aurrean ez dago inongo defentsarik. Bestalde, lanbidearen erroak erasotzen ditu praktika honek; autonomoak kontratatzen dituen enpresak besteen aurrean lehiakortasun handiagoa erakutsi dezake, eskaintzen dituen prezioak murriztuz.

**Gorakada ekonomikoa mantendu den heinean, sistema hau ez da zalantzan jarri**. Industria astindu duen krisia dela eta, segurtasun falta nabarmenki gelditu da agerian. Emakumeen kolektiboaren barnean arazoa are larriagoa da, haurdun geldi-


tzeko langileen eskubidea ez dagoelako —oinarrizko moduan ezta— bermatuta. Dena ugazaben borondate onean lagatzen da, horrek dakarren babesgabetasun-sentipenarekin.

Aipatu dugun Arquitectos Explotados erakundearen web gunean hainbat dokumentu daude eskuragarri, bizi dugun egoera ekonomikoa krudelki aztertuz. Horrela, bada, hilero 1.700 euro inguru kobratzen dituen arkitekto “autonomo faltsu” bat kontratudun batekin parekatuta (hamalau paga, oporrak, langabezia-subsidioa, eta erretirorako pentsioa bermatuta dituen), bere diru-sarrera urtero 792 euroko hamalau diru-saridun kontratu batekin parekatu daiteke. Hau da, Espainiako estatuan finkatu den 600 euroko ordainketa minimotik oso gertu.

## 7 Gainera datorkigun ereduak: Arkitekturitzak

Bereak egin du; eraikuntzaren industriaren birmoldaketa gainean dugu jada, eta nahi edo nahi ez, estudio askok eskalaz aldatu beharko dute biziraun nahi izatekotan. **“Arkitekturitza” hitza datorkigu burura, “Arkitekto” eta “Ingeniaritza” terminoen arteko konbinazioa**. Ele berri hau mamitzeko, gertuko adibide batera jotzea da hoberena; horrela, bada, Bilbo eta Deustu banatzen dituen zubia igaro dugu, Abandoibarran eraikitzen ari den Iberdrola dorreari so, Idom taldearen parte den ACXT makroestudioarekin topatzeko.

Ez dakigu zehazki nola deitu; “makroestudio”, “arkitekturitza”, edo, besterik gabe “datorrena”. Idom ingeniaritzaren sail xume bat izaten hasi bazen, gaur egun 400 behargin inguruko egitura bihurtu da. Guk ez dakigu horrenbeste kalitatea eta kantitatea lortzeko gakoa non den, agian ingeniaritza batek eman dezakeen oinarria izan daiteke, edota beste edozer. San Mames estadio berria, edota Marqués de Riscal upeltegietan antzeman daiteke



Irudiaren egilea: Irati Burgués

beste kategoria batean jokatzen dela, starsystemeko arauak erabiliz; joko horretan jokalaririk arkitektoak, mota guztietako ingeniariak, teknikariak eta project managerrak dira.

Eskalaz benetan jabetzeko, Building Design aldizkariak aurten argitaratu duen munduko 100 arkitektura-estudio hobereenen zerrendara jotzea besterik ez dugu (edo 100 arkitekturitza hobereenak, nork jakin). ACXTk 42. postua lortu egin du, munduan gehien eraikitzen dutenen artean kokatuz. Noski, zerrenda honetan ez dugu Pritzker sari askorik topatuko, hauek enpresak, arkitekturitzak baitira. Agian ez dira kritikak gehien goraiatzaten dituen arkitekturak, baina azken finean gure bizitza eta lurraldea moldeatzen dituztenak dira, portzentaje oso handi batetan.

Marqués de Riscal aipatu dugula, berarekin Frank Gehryren irudia agertuz, arkitekturitza pixka bat hobeto ezagutzen lagunduko gaituen arkitektoarekin bat egiten dugu. César Caicoya (Oviedo, 1950) Guggenheim museoaren proiektuan ezagutu zuen Gehry, Idomek arkitekto estatubatuarraren erronka jaso zuenean hain zuzen ere. Tartean, bien arteko zubia gauzatu, Caicoya bera zegoen, eraikitzeko bi mundu ezberdinak bateratu nahian. Arkitekturarentzat mugarrizugarria suposatu zuen museoaren eraikuntzak; alde batetik, Gehryk arkitekturaren lengoia beste behin ere irauli egin zuen, eskura zituen lanabesa teknologikoez baliatuz. Bestetik, Idom bezalako bertako enpresa batek punta-puntako proiektuak ekoizteko gai zela frogatu zuen, eta azkenik Euskadik, mundu mailan erreferente bilakatu zen hiri-birsorkuntza bat lortu zuen:

**“Estudio tradizionala bukatu egin da, zaharkituta dago erabat”** dio Caicoyak, “nahiz eta beste lanbide tradizional batzuek bezala biziraun, ebanistak edo zapatariak bezala, joera ildo horretatik guztiz aldentzen ari da”. Bere bulegoan gaude, alde batetan Deustu, bestera etengabe lanean diharduen taldea, eta beste bi aldeetan, apaletatik mutu begiratzen diguten liburuz beteriko bi horma. Caicoyaren begirada tarteka mahai gainean den ordenagailuaren pantailara aldentzen da, “barkatu behar didazu, mail baten zain nago”.

Online jokabidea. Benetako denboran. César Pellik diseinatu duen zeru-orratzaren kontrolak jokabide horren beharra izango du, dudarik gabe. “Pellik ez du proiektu oinarritzko bat besterik burutzen, nola lor dezake eraikina kontrolatzea?”, hau da gure galdera, beharbada maltzurutasun puntu batekin egindakoa. “Ez, ez. Eraikinaren gainean dagoen kontrola, komunikazioaren teknologiei esker, erabatekoa da, emaitzaren kontrola osoa da”.

Mesfidati agertzen gara, aditzen dugun guztiak arkitektoaren kontrolaren ezeztatzea baitakar. “Mundu zabala da gurea, moldatu beharra dago. Marqués de Riscal eraikina, adibidez, Gehryk egindako conceptual design batetik sortzen da. Baina gauzatze-proiektua bertan marraztu, kalkulatu eta zenbatu egin da. Dena den, ez dugu pauso bat bera ere eman Gehryk jakin gabe, eta alderantziz. Produktuaren kalitatea absolutua da. **Eta inork ez du ukatzen Herbehereetan edo Japonian arkitektura ona egiten denik, baina hor arkitektoaren irudia ez da hemen daukagunaren modukoa, inola ere ez”.**

Etorkizunaren aipamena etengabekoa da Caicoyaren ber-

betan. Oso esanguratsua dirudi, batez ere, ibilbide profesionala Petrolioaren Krisialdiarekin batera hasi zuen pertsona batengan. Garaioetan (berez 1973an koka dezakegu, baina bere ondorioak luzaroan sentitu ziren gurean), eraikuntzaren industria ia guztiz geldiarazi zen. “Nolanahi ere, oso baikorrak ginen, aurrera aterako ginela uste genuen, nolabaiteko ziurtasun moral batekin geunden hornituta”.

“Arkitekturitza” auzia mahai gainean agertzen dugu, eta Caicoyak ziztu bizian erantzuten dit: “Beste modu batean ulertzen ditut arkitekturitza horiek, ez zuk ulertzen dituzun moduan. Arkitektoa orkestrako zuzendaria da, eta agian orkestra osatzen duten 50 instrumentuetatik bi edo hiru jotzen badaki ere, ezin da harago joan. Beti aukeratu beharko duzu, garapen edo kontzeptu arkitektoaren artean aukeratu”.

### 8 Hasiberri euskaldunak. Arrain txikiak handia jango al du?

Arquia Fundazioak estatu mailako arkitekto gazteen lan interesgarrienak bildu nahi izan ditu. Parte-hartzea irekia zen eta 760 proposamen aurkeztu ziren. Horietatik, Emilio Tuñón, Carme Pinós, Sara de Giles, Marta Cervelló, Patxi Mangado eta Félix Arranzek osaturiko epaimahaiak 128 aukeratu zituzten. Donostiara iritsi berri den erakusketan, 28 aurkezpen ikus daitezke Arkitektoen Elkargoko aretoan.

Ekainaren 4ko irekiera-ekitaldian, Felix Arranz erakusketaren komisarioak hitzaldia eman zuen, adieraziz bera gaztea zenean nolako egoera zegoen eta bere esperientzia zein izan ziren. Ondoren, Gipuzkoako 5 arkitekto-estudio “hasiberriekin” batera mahai-inguru bat osatu zen.

Gipuzkoako arkitekto-estudio hasiberri horiek Yoana Urralburu, Rulot estudioa, Isuuru, Josean Medina, Pablo García Astrain eta Toki izan ziren. Mahai-inguruan, euren lanaren berezitasunak azaldu zituzten, bezeroak zeintzuk eta nolakoak diren esanez eta lana nola antolatzen duten.

Norberaren berezitasunetan sartu gabe, Carlos Rulot-ek eginiko metafora aipatu nahiko nuke. Hark zioen nola ozeanoetako oparotasunean barboak gizentzeko aukerak nola izan dituen, eta arraintxo txikiak, zorrotz eta argi ibili beharra zeukan bizirik irauteko. Ozeanoetako oparotasuna galdurik, gaurko krisi-garaian bezala, esaten zuen nola barboak putzu txiki eta lohitsu batean lozorroan geratu diren, ozeanoaren oparotasunaren zain. Eta arraintxo txikiak, lehengo moduan, ur txikietan bizirautera egokitzen dira. Erakusketa estudio hasiberriek zuzendurik dago, eta beharbada, begirada gehiago luzatu beharko litzaiokie karrera amaitu eta beste lan-talde batzuetan lanean ari diren arkitekto hasiberriek. Izan ere, Felix Arranz-en garaitik, gauzak zertxobait aldatu dira, eta arkitekto hasiberriek hainbat lan egiteko modua aurkitzen dute. Galdera, hau izan daiteke: Zer gertatzen da arkitekto gazte batek karrera amaitzen duenean, 2010 urtean, 1970arekin konparatuz?

1970ean, arkitekto gaztea, esperientziadun arkitekto batekin lan egin ondoren, bere estudioa habiaraztera egokitua zegoen. Bezeroak, gutxi edo asko, izateko aukera bazegoen. Administrazioarentzat lan egitea ez zen oso normala, administrazioan bertan oso postu gutxi baitzeuden arkitektoentzat. Arkitektura-

gaiez bereziki interesaturik zegoenak estatuko hiriburu handietako eskola apurretan bakarrik zuen irakaskuntzarako bidea, eta mugikortasuna urriagoa zenez, hiri horien inguruetan bizitzea baino ez zegoen, lanbide profesionalarekin uztartzea nahi bazen behintzat. Arkitekturari dagokion ikerketa ordea, beka bat jasotzeko zortea zuenari bakarrik zegokion.

Gaur egun, arkitekto gaztea bilduko duen azpiegiturarik ez badago, oso zaila du bere estudio propioa sortzea. Bere aukera nagusia, soldatapean, arkitektura-azpiegitura batentzat lan egitea izaten da. Gai horri jarraiki, esan beharra dago, 1970ean sorrera izaten hasi ziren Ingeniaritza eta Arkitektura taldeak (IDOM, LKS, eta beste) gaur egun tamaina handiko taldeak direla, eta bertan arkitekto ugari topatzen duela bere lanpostua. Beste aukeretako bat, administrazioak eta berari atxikitako enpresak puzten eta ugaritzen joan diren heinean, eurentzako lan egitea da. Esan beharra dago hortaz, arkitekto batek lanerako dituen aukerak zabaldu egin direla, eta aukera-ugaritasun horrek asko zabaltzen duela arkitektoaren izateko era. Gainera, gaur egun, arkitektura-eskola gehiago daude 1970ean baino, eta horrek, asko errazten dio irakaslea izan nahi duenari bertaratzea. Ikerketa beharrezkoa da, ordea, irakasle izan nahi duenak aurrera jo dezan. Horretarako, lehen baino beka gehiago daude, oraindik denak asetzeko adina ez badago ere.

Finean, hausnartu daitekeen aldaketa nagusia azkeneko 40 urte hauetan, arkitektura-ikasketarako izan diren erraztasunak erakarrira, lanbide liberalaren izaera galtzea izan daiteke, eta arkitekto organigrama batzuetan lan egitera bideratu dela esan daiteke.

### 9 Ondorioak. Zer arkitektura mota ikusiko du XXI. mendeak?

Star-system berri honetan murgilduta, arkitektura berezi baten sorrera ikusi dugu. Antzinako “lanbidetik”, egun begi-bistan dagoen “irudi-saltzaileen” eremura igaro gara. Carlos Hernandez Pezzik, EAEGKren presidentearen esanetan, azken urteotan Espainiako arkitekturak izan duen garapen distiragarria (eta horri erantsita dauden bizio guztiak, zergatik ukatu) arkitektoek beren gain jaso dituzten botereen ondorio zuzena da.

Sorkuntzaren eta teknikaren arteko maitasun-istorioa, aldiz, ez dator bat lan-mundura ateratzen diren gazteen bizipenekin. Gero eta gehiago, “luxuzko delineanteak”, “autonomo faltsuak” eta beste hainbeste termino agertzen zaizkigu 40 urte baino gutxiago dituzten arkitektoen hizketan. Arkitektoaren irudi berria hain markada bat lanean egonik, eta bere aurretik zeudenak ez bezala, obran oso denbora gutxi eman duenaren teknikariarena da.

Beraz, **arkitekturaren nahaspila honetan hasi behar duenarentzat krisialdi ekonomikoa, heziketa-paradigmen aldaketa eta lan moduen iraulteta datoz.** Lan modu ezberdinak bilatzeko ardura ezinbestekoa da, aurretik krisiak (eta logikoak diren moldaketak) egon direla ulertuz, eta etorriko diren krisiei aurre egiteko lana-besak orainaldian eraikitzeko borondatea berreskuratuz. 